



ALBISTEAK

Kepa Iribarren "72 ordu" liburua aurkeztu du Erein argitaletxeak

— 2022-05-26

Apirilean jakinarazi genuen Kepa Iribar liburua bat argitaratzekotan zela, eta atzo iritsi zitzaion ordua. Erein argitaletxearen Uzta Gorria sailean argitaratu da "72 ordu" liburua. Donostiako Udal Liburutegian, Inazio Mujika editorea alboan zuela, egin zuen aurkezpen ekitaldia.

Liburua idazteko abentura "gustatu zaiola" azaldu zuen Iribarrek. Gustura gelditu da azken emaitzarekin eta irakurleen iritzia entzuteko gogoz dago orain. Nobela poliziakoa bada ere, odol askorik ez dagoela eta hildako pila bat agertzen den nobela horietakoa ere ez dela aurreratu zuen kazetariak.

2022ko irailaren 6an, Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman ziola 500 urte betetzen diren egunean kokatzen da istorioa. Ospakizun handia antolatuta da bere jaioterrian, Getarian. Inoizko Lehorreratze jai bereziena izango da. Baina hilketa mehatxu batek hankaz gora jarri du festa atariko lasaitasuna. Ordulariaren tik-tak hotsak segundo bat aletzen duen bakoitzean, atentatua hurbilago dago. 72 orduko erlojuaren aurkako bilaketa batean murgilduko da Ertzaintza, baita Aitor Letamendia detektibe pribatua, eta Idoia Urdaneta udaletxeko zinegotzia ere.

Aurkezpenaren amaiera, Inazio Mujikak bigarren liburua bat idatziko al duen galdetuta, Iribarrek ez zuen baieztatu ezer, baina ezezkorik ere ez zuen eman. [Erein argitaletxean webgunean](#) liburuaren zati bat irakur daiteke, eta erosteko aukera ere badago.

Aurkezpeneko bideoa:

Argazkia: Erein argitaletxea

Irakurle, gure webgunean albiste hau irakurri baduzu, publizitate eta erakundeen diru laguntzez gain, urtero 30 euroko diru ekarpena egiten duten 350 bazkidetik gora ditugulako izan da. Mila esker bazkide! Herri eta auzoetako berri euskaraz emanez, normalizaziora bidean gure ekarpena egiten jarraitu nahi dugu. Proiektua sendotzen lagundu nahi baduzu, egin zaitez bazkide.

[Egin zaitez bazkide](#)

Albiste gehiago

[\[BIDEOA\] 1966ko haurren danborrada](#)[\[BIDEOA\] Xabier Amuriza: 'Uztapide, bertsoetik prosara'](#)[Azken ostiraleko elkarretaratzea deitu du Sarek biharko](#)[Zestoako Antzerki Asteko egitaraua iragarri dute](#)

Partekatu:



INKESTA

Zer iruditzen zaizu eskolako txikizioen aurrean Udalak zaintza kamerak jartzea? Ondo Gaizki Ez dakit[EMAN BOTOA](#)

Emaitzak

AGENDA

**Gaztelekua: Jolas librea**

26 maiatza

**Asentzioak Endoian**

26 maiatza

**Energia komunitatearen 4. batzarra**

26 maiatza @ 6:00 pm

**Gaztelekua: Bilarra**

27 maiatza

[Ekitaldiak guztiak ikusi](#)[IKUSI AGENDA OSORIK](#)

GIDA

Gida kome



Gure postontzia

info@danbolin.eus

AZKEN ALDIZKARIA



JARRAI GAITZAZU

danbolin



KONTAKTUA

Zestoa - 20740
www.danbolin.eus
info@danbolin.eus

GUNEAREN MAPA

Albisteak
Multimedia
Agenda
Paperekoa
Komunitatea
Gida
Argitalpenak
Aldizkariak
Liburuak
Nor gara
Kontaktua

AZKEN POSTAK

Kepa Iribarren "72 ordu"
liburua aurkeztu du Erein
argitaletxeak
[BIDEOA] Xabier Amuriza:
'Uztapide, bertsozik prosara'
Azken ostiraleko
elkarretaratzea deitu du
Sarek biharko
Zestoako Antzerki Asteko
egitaraua iragarri dute
(izenbururik ez)
Jon Alberdik denbora ona
egin du Txindokiko Kilometro
Bertikala proban

Username:

Password:

Remember me

Login

[Lost your password?](#)

Diruz lagundutakoa



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ZESTONAKO UDALA

Proiektu laguntzaileak



DANBOLINEko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egile-tza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.



© 2018 – Danbolin. Eskubide guztiak erreserbatuta. **ORDENA JU CABEZA**k sortua